

## DONOSTIAKO BERTSOLARITZA: 1813TIK GAUR EGUNERAINOKO HISTORIA BAT

### Irakaslea

MANEX MUJIKA, Goi mailako injeniarria, bigarren hezkuntzako irakaslea. Bertsolari bezala hainbat saio eta Gipuzkoako txapelketako partaide izan da, baita bertso saio ugariren antolatzaile eta gaijartzaile. Bertso eskolako irakasle gisa gaztetxoek bertso irakasle eta Bagerak antolatutako helduen bertso eskolako irakasle. Besteak beste, Gipuzkoako bertsozale elkarteko zuzendaritzako kidea, Donostiako bertsolaritzari buruzko hitzaldiak eta era desberdineko ekimenak antolatu ditu eta Aieteko euskara batzordearen sorreratik partaidea da.

### Ikastaroaren helburuak

- Donostian, 1813. urtetik hona izan diren bertsolariak ezagutzea, euren bizitzaren eta, batez ere, bertsoen bidez.
- Aipatutako bertsolari eta bertsoen bidez, Donostiaren historiaren eta garai ezberdinetako egunerokoaren beste ikuspegi bat ezagutzea.

### Nori zuzendua

Donostiako historiarekiko eta kultur ibilbidearekiko interesa duten pertsonak. Berezi, bertsolaritzarekiko interesa duten pertsonak

### Metodologia

Bertsolariak taldeka eta kronologikoki sailkatuta, saio bakoitzean euren bizitza, kontestu historikoa eta bertsoak aurkeztuko dira (zehaztapen gehiago programaren atalean).

Saioek bi zati izango dituzte:

- Azalpena eta bertsoak. Saioari dagokion bertsolariei buruzko azalpenak eta beraien bertsoak kantatzea.
- Elkarriketa. Saioan zehar sortutako galdera, iritzi eta abarrak partekatzeko tartea.

Saioen iraupena ordubetekoa izango da gutxi gora behera: azalpena 45-50 minutukoa eta ordu laurden inguruko elkarriketa.

### Data-ordutegia

X 18 – XI 29

Astelehena 19:00-20:00

### Hizkuntza

Euskara

### Oharra:

- Matrikularen zenbatekoan ez da ikastaroko materiala sartzen, eta ikastaroa egin bitartean behar izan daitezkeen bestelako materialak ikastaroko ikasleek emango dituzte. Ikastaro batzuetan, Donostia Kulturak hasierako oinarrizko materiala jarri ahal izango du.